

Segmentazioa

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Vitalix-ek merkatu konplexu batean jarduten du, non hainbat kolektibo elkarreragiten duten balio-sare komun baten barruan. Hori dela eta, segmentazioa ezinbestekoa da bezero bakoitzaren beharrei modu pertsonalizatuan erantzuteko eta aplikazioaren inpaktua maximizatzeko.

1. ZEIN DA GURE BEZEROA? (Xede-bezero nagusia)

Vitalix-en xede-bezeroa ez da homogeneoa; plataforma batez besteko herritarrentzat erabilgarri den arren, funtzionamendua eta arrakasta bi talde nagusiren gainean eraikitzen dira:

1. Herritarrak eta erabiltzale arruntak
2. Boluntario sanitarioak eta lehen laguntzetan trebatuak

Hauek dira erabiltzaileen sarearen oinarri sendoena. Horiek gabe, aplikazioak ez luke funtzionatuko: herritarrek alertak igortzen dituzte eta boluntarioek erantzuten diete. Bigarren mailan, baina estrategikoki oso garrantzitsua:

3. Erakunde publikoak (udalak, osasun-sistemak, SOS Deiak / 112)
4. Aseguratzailerak eta osasunarekin zerikusia duten eragile komertzialak

Hauek dira plataformaren hazkundera, legitimazioa eta jasangarritasuna bermatzen dituzten aktoreak.

1.2 Bezeroen ezaugarriak xehetasunez

1. Herritarrak (Erabiltzaile arruntak)

-Adina: 18–65 urte.

Profila:

- Teknologia erabiltzen ohituta dauden pertsonak
- Segurtasuna eta komunitate-laguntza baloratzen duten herritarrak
- Familia, guraso, kirolari eta adinekoen ingurua zaintzen duten pertsonak

Behar nagusiak:

- Segurtasun pertsonala eta ingurukoa
- Larrialdietan laguntza jasotzeko kanal azkarra
- Lehen sorospenetan prestatzeko ingurune segurua eta erraza

Balio erantsia:

Vitalix-ek konfiantza, prestaketa eta lasaitasuna ematen dizkie, jakinda premiazko egoeretan laguntza hurbil izango dutela.

2. Boluntario sanitarioak**Profilak:**

- Erizainak
- Medikuntzako profesionalak
- Gurutze Gorria / DYA boluntarioak
- Lehen sorospen arautuetan ziurtagiria duten pertsonak

Motibazioak:

- Ezagutza praktikan jartzea
- Komunitateari laguntzeko gogo
- Prestakuntza eta protokolo eguneratuak izatea

Beharra:

- Alertak denbora errealean jasotzea
- Jarraitu beharreko pauso eta protokolo oso garbiak
- 112 / SOS Deiak-ekin integrazio segurua

Balio erantsia:

Prest dauden pertsonak modu eraginkorrean aktibatzekeo tresna fida

3 Erakunde publikoak (udalak, osasun-zerbitzuak, larrialdi sareak)**Motibazioak:**

- Erantzun-denborak murriztea
- Herritarren segurtasuna indartzea
- Boluntario sare homologatu eta kontrolatu bat izatea

Beharra:

- Plataforma integratua eta interoperablea
- Datu gardenak eta araudia betetzen duen sistema
- Koordinazio automatizatua boluntario eta 112 artean

Balio erantsia:

Vitalix-ek osasun-sistema publikoaren gaitasuna zabaltzen du, baliabideak optimizatuz.

4 Aseguratzailerak eta osasun-enpresak

Motibazioak:

- Arrisku medikoa gutxitzea
- Banakako eta komunitate mailako prebentzioa sustatzea
- Kostu sanitarioak murriztea

Beharra:

- Datu fidagarriak
- Elkarlanerako plataforma gardena
- Erabiltzaile profilak ezagutzeko aukera

Balio erantsia:

Lesio larriak eta gastu medikoak gutxitzen laguntzen duen tresna efektiboa.

1.2 Gure Xede-bezeroaren definizio

Vitalix-en xede-bezero nagusia:

- 18–65 urteko herritarrak, komunitate-laguntza eta segurtasuna baloratzen dutenak.
- Boluntario sanitario trebeak, egoera kritikoetan jarduteko prest daudenak.

Bezero estrategikoak:

- Udalak
- Osasun publikoko zerbitzuak
- Aseguratzailerak eta osasun-enpresak

2. Merkatu mota: Vitalix non kokatzen da?

Merkatu multilateral

Vitalixek erabiltzaile talde desberdinak konektatzen ditu, eta talde oriek elkarren artean

elkarreragin behar dute zerbitzua funtziona izateko, alertak bidaltzen dituzten herritarrak, erantzuten duten boluntarioak, jarduera gainbegiratzen duten erakunde publikoak, datuak erabiltzen dituzten aseguratzaileak... Talde bakoitzak balioa ematen die beste beraz, plataforma talde horien arteko elkarren mendekotasunari ezker funtzionatzen da.

2.1. Merkatu segmentatua

Talde bakoitzak behar oso desberdinak ditu:

- Herritar arruntak: segurtasuna eta prestakuntza
- Boluntarioak: protokoloak eta intzidentzien kudeaketa
- Erakunde publikoak: koordinazio eta datu ofizialak
- Aseguratzaileak: arrisku eta kostuen kontrola

Balio-eskaintza guztiz pertsonalizatua da segmentu bakoitzerako.

2.2 Plataforma edo merkatu multilateralak

Vitalix merkatu multilateralaren definizio perfektua da, zeren:

- Herritarrek alertak igortzen dituzte
- Boluntarioek erantzuten diete
- Erakunde publikoek jarduera gainbegiratzen dute
- Aseguratzaileek prebentzio datuak eta arrisku murriztua jasotzen dituzte

Plataformak talde batzuk beste taldeen arabera existitzen direla bermatzen du.